DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

2019ko Irailaren 24ko Bozeramaileen Batzordeak, ohiko bilkuran, gehiengoz erabaki du erakunde adierazpen hau onartzea (EAJ/PNV, Doostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta ELKARREKIN DONOSTIA taldeen bozeramaileak alde izan dira eta EH BILDU taldearena abstenitu egin da):

Que la Junta de Portavoces, en sesión ordinaria del 24 de septiembre de 2019, acuerda, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y ELKARREKIN DONOSTIA y la abstención de la Portavoz del Grupo EH BILDU, la aprobación de la siguiente Declaración:

*“Donostiako Udalak martxoan jarri zituen terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak gogoratzen dituzten lehen lau plakak. Juan Maria Araluce, Jose Maria Elicegui, Antonio Palomo Perez eta Luis Francisco San Flores dira, laurak ere ETAk 1976an erailak, Askatasunaren hiribideko 7. eta 9. zenbakien artean jarritako plaketan agertzen diren izenak, toki horretan tirokatu baitzituzten.*

*“El Ayuntamiento de San Sebastián instaló en marzo de este año las cuatro primeras placas que recuerdan a las víctimas de años de terrorismo y violencia política. Juan María Araluce; José María Elicegui; y Antonio Palomo Pérez, Luis Francisco Sanz Flores y Alfredo García, asesinados en 1976 por ETA son los nombres que figuran en estas placas ubicadas entre los números 7 y 9 de la Avenida de la Libertad, donde fueron tiroteados.*

10740n XVII

*Hilabetean hirugarren aldiz, oroimenezko plaka horiek espraiz zikindu dituzte. Ekintza horrek iraindu egiten ditu hildakoak, haien senitartekoak eta herritarrak oro har; izan ere, haien nahia da bizikidetzaren premisatzat hartzea indarkeriak eta giza eskubideen urraketak hainbeste urtean eragindako minarekiko eta tragediarekiko errespetua, tolerantzia eta askatasuna, eta behin betiko amaitzea etorkizunean indarkeria akuilatzeko eta justifikatzeko tentazio oro.*

*Por tercera vez consecutiva y en el plazo de un mes, estas placas conmemorativas han sido rociadas con espray, lo que supone una afrenta a la dignidad de los asesinados, a sus familiares y al conjunto de una ciudadanía que aspira a convivir bajo las premisas del respeto al dolor y a la tragedia causada por tantos años de violencia y vulneración de derechos humanos, la tolerancia, la libertad y el sello definitivo a cualquier tentación de alentar y justificar la violencia en el futuro.*

*Premisa horien pean, erakunde demokratikoek, eta, kasu honetan, Donostiako Udalak, Donostiako Udalean ordezkaritza duten alderdiek irudikatzen duten pluraltasuna abiaburu, sustatu behar dituzte gure elkarbizitza, eta gorrotoa nahiz biktimen duintasuna deslegitimatzea bermatzeko printzipioak, etengabe pedagogia ariketa bat eginda, balio demokratikoak behin betiko zigilatzeko eta indarkeria erabiltzea, lehen zein etorkizunean, justifikatzea uxatzeko.*

*Bajo esas premisas, las instituciones democráticas, y en este caso el Ayuntamiento de San Sebastián tienen la obligación de promover desde la pluralidad que representan las formaciones políticas representadas en el Consistorio, los principios que garanticen nuestra convivencia, la deslegitimación del odio y quebranto de la dignidad de las víctimas, en un ejercicio de pedagogía permanente que sirva para sellar definitivamente los valores democráticos y*

*ahuyentar cualquier justificación del uso de la violencia, tanto en el pasado como en el futuro.*

*Horiek hala direla, hauxe da udal talde sinatzaileok aurkezten dugun*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalbatzak, Donostiako gizartearen aniztasuna ordezkatzen duen erakundea izanik, gaitzetsi egiten ditu oroimenezko espazioaren aurkako erasoak, zeinaren helburua baita, kasu guztietan gertatzen den bezala, modu bidegabean eta justifikaziorik gabe hil zituzten bost pertsona oroitaraztea eta ohoratzea, eta argi eta garbi egiten du apustu gure gizartearen etorkizuna edozein eraso edo abusuren aurrean askatasuna, errespetua eta tolerantzia premisatzat hartuz mamitzearen alde.*

*2. Donostiako Udalbatzak adierazten du eskura dituen baliabide guztiak erabiliko dituela biktimen duintasunaren aurkako abusu edo eraso gehiagorik ez gertatzeko.*

*3. Donostiako Udalbatzak adierazten du herritar guztiek etorkizunari beldurrik gabe begiratzen diotela eta bizikidetza askatasunean eraiki nahi dutela. Hori da, halaber, euskal erakunde demokratikoek hartzen duten konpromiso aktibo eta protagonista". =====================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2019ko urriaren 3an.

*Por todo ello, los Grupos Municipales firmantes presentamos la siguiente*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián, institución que representa la pluralidad de la sociedad donostiarra, condena los ataques contra el espacio memorial, que busca recordar y honrar a cinco personas que, como ocurre en todos los casos, fueron asesinadas de forma injusta e injustificada, y expresa su apuesta inequívoca por forjar el futuro de nuestra sociedad bajo las premisas de la libertad, el respeto y la tolerancia frente a cualquier tipo de ataque o abuso.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián manifiesta que pondrá todos los medios a su alance para evitar que se repita cualquier tipo de abuso o ataque contra la dignidad de las víctimas.*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián expresa que el conjunto de la ciudadanía mira al futuro sin miedo y quiere construir la convivencia en libertad. Ése es también el compromiso activo y protagonista que asumen las Instituciones democráticas vascas". ==============================*

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 3 de octubre de 2019.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**